


SHESHENARENA K.E.<sup>nº3</sup>

Zezenak Dira



SHESHENARENA



# Albaitariak eta Zezenketa

José Manuel Etxaniz

XIX. mendeko hasieratik gutxienez zezenketa Araudi baten mende egon da. Horren xedea zen, festaren osagaiak arautzeaz gain, bere garbitasuna bermatzea ikusleari, agurgarri den horri.

Albaitariak leku berezia dute aipatu Araudian. Aginteeak (egun, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila) aginduta, zezenek ezarritako baldintzak betetzen dituztela aztertu beharra dute: arraza, kasta, adina, defentsen osotasuna, gaitasun fisiko eta psikikoak eta beren ongizateari loturiko beste zenbait alderdi. Horrez gain, festaburu bakar den Presidentearen aholkulari izango dira ere. Eta haragiak kontsumorako bideratuko balira, aipatu haragia aztertu beharko lukete, laginak hartuz plazako larrutze-gelan bertan, bere egokitasuna egiaztatzeko.

Zezen-plaza Txofren zegoenean albaitariak Donostiako Udal Albaitari Zerbitzuko kideak ziren: Sebastián Ubiría, Ignacio Marculeta eta Jesús Echeveste.

Ondoko lerroetan Albaitaritzak ikasten nenbilenean zezen-aukeraketa batean bizitako pasadizo bat azalduko dut. Luis Miranda Martínez albaitari donostiarra eta biok haren lekuko bereziak izan ginen. Egun hilda daude denak.

Donostiako Aste Nagusia; 1972ko abuztuaren 16a. Franco diktadoreak Aieteko Jauregia Utzi eta aingurak badian botata dituen Azor ontzian bazkaltzen duen bitartean, Txofreko kortetan arratsaldeko zezenketan arituko diren Baltasar Ibáñen zezenen hautaketa egiten da. Zezenketa asteko laugarrena izango da eta Estatuburuaren presentzia iragarria dago.

Toreatzaileen konfiantzazko laguntzaileak, ganaduzalea eta bere maizterra, presidentea, albaitariak eta gonbidatu gutxi batzuk gaude han. Baita uniformedun polizia asko ere. Grisez batzuk, "kaleko jantziekin" besteak. Zezenketa jaialdia kaskarra izan da ordura arte eta, azkenean, porrot hutsa izango zen.

Albaitariak, aukeraketan, zezen guztiak atzera botatzen dituzte. Aktak dioenez ez dute satairik, ezta defentsa nahikorik ere. Ondorioz, ez dituzte zezenketarako baldintzak betetzen.

Hura bai eskandalua.

Presidenteak, Polizia-komisarioa, ez du txostena onartzen; konbentzitzen saiatzen hasten da lehenbizi; mehatxuka gero. Telefono-dei ugari egiten dira. Valencia Remón zorigaitzoko gobernadorea sutan dago. Franco Buruzagiaren presentzia dela-eta, ezinezkoa da festa bertan behera uztea. Ordena publikoa sataia eta beste guztiaren gainetik dago.

Albaitariak, ordea, eta beren etika profesionalean babestuta, Francoren batera hirira gerturatu diren aginte guztien presioei aurre egiten diete.

Beren iritzia tinkoa da.

Ganaduzaleak, ohorea kolpatuta, zezen guztiak hiltzea eta beren haragia lurraldeko ongintzazko erakundetan banatzea agintzen du. Deskalabru itzela berarentzat, ekonomikoki behintzat. Egoera eta aginte ezberdinekin zezenketarekin aurrera egiteko aukera egon zitekeen apika.

Normala denez, ondoko egunetan mota guztietako kritika eta iruzkinak egon ziren. Albaitariak, halere, babes handia jaso zuten.

Izan bedi aurrekoa plazako ezkutalekuan gure aurretik egondakoei eginiko omenaldia; beren lezioak zinez eskertu eta aintzat hartzen ditugu.



# Los veterinarios y la fiesta de los toros

Cuando menos desde comienzos del Siglo XIX, los festejos taurinos se han regido por un Reglamento que, además de ordenar los distintos aspectos del festejo, pretendía garantizar al espectador -el respetable- la pureza del mismo.

En ese Reglamento, tienen un apartado especial los veterinarios que, nombrados por la autoridad gubernativa, en la actualidad el Departamento de Interior del Gobierno Vasco, deben comprobar que los toros reúnan las condiciones previstas para su toreo, raza, encaste, edad, integridad de las defensas, aptitudes físicas y psíquicas, amén de otras exigencias relacionadas con el bienestar animal, asesorando al Presidente, única Autoridad en el festejo.

Además y en el supuesto de que las carnes se destinen al consumo, también deberán realizar las inspecciones de carnes y tomas de muestras en el desolladero de la plaza, para certificar su aptitud.

En las épocas de la plaza de toros de El Chofre, los veterinarios de la plaza eran los del Servicio Municipal Veterinario donostiarra, Sebastián Ubiría, Ignacio Marculeta y Jesús Echeveste.



Me referiré a una anécdota de la que fui testigo excepcional, como estudiante de Veterinaria que asistía al apartado de los toros, acompañado del también veterinario donostiarra, Luis Miranda Martínez. Hoy, todos ellos fallecidos.

Semana Grande donostiarra; 16 de agosto de 1972. Mientras el Dictador Franco se ha desplazado desde el palacio de Ayete al yate Azor fondeado en la Bahía, para tomar el aperitivo, en los corrales de El Chofre se procede al apartado de las reses de la ganadería de Baltasar Ibán que se lidiarán esa tarde, en la 4ª corrida de abono, con la asistencia prevista del Jefe del Estado.

Asisten los peones de confianza de los toreros, el ganadero acompañado de su mayoral, el presidente, los veterinarios y muy pocos invitados. Pululan muchos policías uniformados. De gris unos, de "secretas" los otros. La Semana taurina transcurría mal y finalmente, resultaría un auténtico desastre.

Los veterinarios, en el reconocimiento, rechazan toda la corrida haciendo constar en el acta, carece de trapío, insuficiencia de defensas y no reúne por tanto las condiciones necesarias para la lidia.

El escándalo estaba servido.

El Presidente, un comisario de Policía, se niega a aceptar el dictamen; intenta convencer, antes de pasar a las amenazas. Se suceden las llamadas telefónicas. El Gobernador, Valencia Remón, de infausta memoria, está enfadado. La presencia del Caudillo imposibilita cualquier suspensión. El orden público debe prevalecer sobre el trapío y cualquier otra zarandaja.

En contraposición, la ética profesional de los veterinarios les permite soportar las presiones que se suceden desde todas las instancias que, acompañando al Generalísimo, también se encuentran en la ciudad.

Los veterinarios mantienen su criterio.

El ganadero, haciendo gala de su pundonor herido, ordenó el sacrificio inmediato de los toros y la distribución de su carne en los centros benéficos de la provincia. Un desastre económico para él. Quizás con otros y dadas las circunstancias, podía haber colado la corrida.

Como es de suponer, en los días posteriores se sucedieron críticas y comentarios de toda índole. También recibieron numerosas manifestaciones de apoyo.

Sirva este testimonio de homenaje a los que nos precedieron el burladero de la plaza, cuyo magisterio agradecemos y tenemos presente.